

Bortzirietako ZAINTZA ANTOLAKETA

zaintza lanen diagnostikoa
eta ekintzarako proposamena



Bortzirietako
Berdintasun Zerbitzua



SAR HITZA

Eskuartean duzuna *Bortzirietako zaintza antolaketa: zaintza lanen diagnostikoa eta ekintzarako proposamena 2025* lanaren ondorio nagusiak jasotzen dituen gidaliburua da. 2024an hasi eta 2025 hasiera arteko prozesuaren lehen emaitza da, Bortzirietako eragile komunitario zein publiko aunitzen parte hartzearekin egindakoa.

Bortzirietako zaintzaile profesionalen, etxeko langileen, zaintzaile afektiboen, amen, adineko pertsonen, desgaitasunari arreta ematen dioten langileen eta haur eta gazteen hezkuntzan dauden esperientzia zein beharretan oinarritutako lan kualitatiboa da. Lanaren helburua argia da: zaintza lanen antolaketa bidegabeari aurre egitea, eta horiek demokratizazio bidean jartzeko aldaketak sustatzea.

Horiek hauspotzeko, ordea, guzcion laguntza behar dugu. Hemen ez da deus bukatzen. Errealitatera hurbildu gara, beharrak atzeman ditugu eta hemendik aitzinera horiek eraldatzeko akordio zabalak eta konpromiso irmoak hartzeko abagunea sortu behar ditugu.

ZAINTZA LANAK:

ZERTAZ ARI GARA?

Zaintzak askotariko ikuspegiak zeharkatzen dituzte, eta gai konplexu baten aitzinean gaudela badakigu. Dira lanak, denborak eta esfortzuak bizitzak bizitza izateko. Dira prozesu zehatzak, zuzenak eta, era berean, prozesu ikusezinak, zeharkakoak. Subjektibitate handiko lanak dira, emozio, sentipen, afektu, afektu eza zein maitasun edo maitasun ezarekin lotzen direnak. Ez dira ekintza bakarra; hots, askotarikoak dira. Uztartu daitezke eta horrek zama areagotzea ere ekar dezake. Etengabea ardua eta disponibilitatea eskatzen dute maiz, zerbaiti arretaz egotea, begirale gisa egotea. Ondorioz, erran dezakegu ez dela lan zehatz bat soilik, lan bat egiteko denbora potentziala ere barne biltzen da.

Bizitza mantentzen dute eta gainera ongizatea eskaintzen digute. Horiek horrela, zaintzak ongizaterako baldintza materialak ziurtatzen dituzte eta gorputz zein emozioen arreta bermatzen dute. Pérez Orozcoren (2014) definizio honekin bat egiten dugu:

“pertsonen ongizate fisiko eta emozionala egunero eta belaunaldiz belaunaldi birsortzen duten jarduerak dira zaintza lanak”.

Gure existentziaren oinarri dira, eta zaurgarritasunari aurre egiteko era bakarra elkar zainduz da. Are gehiago, planeta honetako pertsona eta izaki bizidun gehienek aitzinera egitea ahalbidetuko duten baldintza politiko, sozial, material eta emozionalak eskaintzeko gure gaitasun indibidual eta kolektiboa direla ere uste dugu (The Care Collective, 2021).

Alabaina, ezin ditugu zaintzak esentzializatu eta erromantizatu. Bi alde dituzte: bata eraldaketa zein askatasunarekin lotu gaitzake; berteak, zapalkuntza eta diskriminazioarekin. Generoen arteko gatazka eremua dira, emakumeak desjabetzen dituen. Ez dira baldintza justuetan egiten, ez dira eskubideak errespetatzen eta dauden beharrak ez dira kontuan hartzen. Abusu aunitz gertatzen dira, eta tranpa horiek guziak azaleratzea, zaintza lanak demokratizazio bidean jartzeko ezinbertze-koa izanen da.

ZAINTZA KRISIA

Gaur egun zaintza lanak antolatzeko dugun moduak ez ditu gizartean dauden beharrak asetzen eta datozen urteetan egoerak okerrera egingen duela iragartzen dute datuek, zaintzak bertze era batera antolatzen ez baditugu behintzat.


Aldaketa soziodemografikoak, mendekotasun indizearen gorakadak, emakumeen lan merkaturatzea masiboak zein bizi espektatiben aldaketak, politika neoliberalen garapenak nahiz sistema publikoa higatzeak, eta askotariko familia ereduaren hedapenak, zaintzak antolatzeko moduetan eragin handia izan dute. Horregatik zaintza krisiaz mintzo gara.

ZAINTZAREN KATE GLOBALA

Lehen katebegia iparraldeko emakumeek osatzen dute, ez dutelako nahi edo ezin dutelako inguruko zaintza lanez arduratu.

Horiek lan merkatura ateratzen direnean, bertze emakume batzuek uztan dituzte zaintza lanak. Horra hor bigarren katebegia, hegoaldeko migratu duen emakumea.

Horiek, era berean, beren jatorrizko herrialdean bere inguruko bertze emakumeengan laga dituzte ordurarte bere kargu zeuden lanak. Azken horiek izanen lirateke hirugarren katebegia.



Zaintza lanen krisiak areagotu egin ditu Europako zeinbait herrialdetan ditugun premiak, eta horrek bultzatuta, eskari handia dago, hegoalde globaleko herrialdeetako emakumeena. **Emakume etorkin eta arrazializatuak** dira nagusi zaintza lanetan, bai administrazio publikoak bultzatutako zerbitzuetan (geroz eta gehiago), bai merkatuaren logikan mugitzen diren bertzelakoetan (irabazi asmoko enpresetan), bai etxeko langileen kasuan ere. Horregatik, zaintza lanen antolaketari buruz egiten dugun hausnarketak, ikuspegi transnazionala izan behar du.

Tokiko antolaketari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu ez dugula berariaz zaintzaz arduratzen den sistemarik, konektatu gabeko irla ugari daudela, bakoitzak dituela lan tresna eta baliabide ezberdinak eta pertsonen zaintzarako herritarrok leihatila aunitzetatik pasatu behar izaten dugula. Erabat burokratizatutako prozesu motelak pasa behar dituzte zaintza premiak dituztenek, eta zerbitzu eskas batzuk dituzte eskura. Gaur egun, zaintza ez da eskubide unibertsala, eta horrat ailegatzeko prozesua sustatu nahi dugu Bortzirietan.

ZAINTZA:

ETIKA ATZERA KOIAK BALDINTZATUA

Zaintza erregimena bidegabekoa da eta askotariko fenomenoak elkarlotzen ditu: lan prekarietatea, lan merkaturko segmentazioa, pobrezia feminizazioa, jardun bikoitzak, denbora pobrezia, bizi proiektuen alboratzea, bazterketa soziala eta indarkeria matxista.

HIPERFEMINIZAZIOA

- Emakumeak dira nagusi zaintza lan profesional eta ez profesionalean. Gizonen hutsunea nabaria da bai batean zein bertzean.
- Horrek emakumeak desjabetzen ditu, ekonomikoki, politikoki eta sozialki.

FAMILIARIZAZIOA

Familiak dira zaintza lan emaile nagusiak, eta ardurak handiena hartzen dutenak. Gainera, familiako zaintzak dira desio ditugunak, eta lehenesten ditugunak, gure zaintza iruditeria medio. Familien barrenean, emakumeak dira zaintzaile nagusiak.

LEGE FAMILISTA ETA ARRAZISTAK

- 4/2000 Atzerriartasun lege organikoa.
- 1620/2011 Errege Dekretua, etxeko zerbitzuaren izaera bereziari buruzkoa.
- 27/2011 legea, Gizarte Segurantzareko erregimenari buruzkoa.
- 39/2006 Mendekotasun legea.

DESFAMILIARIZAZIO ESTRATEGIAK

- **Pribatizazioa:** etxeko langileen kontratazioa da gailentzen dena.
- **Merkantilizatua:** irabazi asmoa duten enpresak gailentzen dira sektorean.
- **Informalak:** aunitzetan ez daude lege arauen menpe (etxeko langile internak, adibidez).

Horri aurre egiteko, garrantzitsua da Bortzirietako **pertsonen bizitzak erdigunean jarriko dituen zaintza antolaketa berri baten alde lan egitea**, elkarrekikotasunean oinarrituta.

ZAINTZA LANAK

LANDA EREMUAN

Zaintzen lanak landa eremuan ere bertze territorio batzuetan bezala arestian aipatutako aldagaiak ditu. Hala ere, badi-tu hainbat berezitasun, aipagarriak zaizkigunak analisia egiterako garaian, eta bereziki, horiek eraldatzeko ikuspegian.

★ Landako emakumeak **euren in-guruaren zaintzaile ere izan dira.** Emakume landatarrak nekazariak izan dira nagusiki eta Industriali-zazio prozesuarekin, baserritarren kulturek eraikitako ondare aberatsa baztertu eta ezagutza gutxietsi zen, landako emakumeak zokoratuz.

★ Landa eremuan gizarte zerbitzuak eskasak dira eta, maiz, ez dira ego-kitzen dauden berezitasunetara. Hornidura hagitzez txikiagoa dago landa eremuan, irisgarritasuna ez da erraz bermatzen eta **hutsune horiek emakumeek bete behar dituzte**, haien eguneroko bizi eta lan baldintzetan zigorak eraginez.


★ Horiek horrela, bizitzaren iraunkortasunaz, zaintzaz eta etxeetako elikaduraren erantzukizu-naz arduratzen direnen **bizitzak ez daude lehen lerroan.**

★ **Faktore demografikoak ere badaude:** batetik, azken urteotan gazteek landa eremua uzteko apus-tua egin dute eta migrazio horrek biztanleria piramidearen gailurrean emakume gehiago agerrarazi ditu. Bertzetik, eta horrekin lotuta, landa eremuan biztanleriaren zahart-zea ekarri du, eta horrenbertzez mendekotasun egoeran dauden pertsonen kopurua igotzea ekarri du, zaintzaz arduratzen diren emakumeen lan karga handituz.

★ **Baserriek emakumeei esker funtzionatu dute** langile nekaezi-naren ideari lotuta. Etxea zaindu dute, etxean bizi diren guziak, ingurua zaindu dute, eta, gainera, baserriko lan banatuak ere eraman dituzte aitzinera. Horiek gainera ikusezinak izan dira.

★ Horiek horrela, **landa eremuan zaintza lanen pisua handitzen ari dela ondoriozta dezakegu**, eta horren ondorioz bertze emaku-me batzuen kontrataziora jo da, eta gehienetan migratu duten emakumeak daude zaintza lan profesionaletan.


BIZTANLERIA SEXUAREN, ADINAREN, ETA UDALERRIAREN ARABERA
2022KO URTARRILAREN 1A BITARTE.



EUSKALDUNAK ETA ADIN TALDEAK HERRIZ HERRI ETA BORTZIRIAK. 2021.

	ARANTZA	BERA	ETXALAR	IGANTZI	LESAKA
ADINA					
2-14	98,8 %	91,8 %	98,3 %	100 %	99,1 %
15-24	97,8 %	85,6 %	91,4 %	97,1 %	92,9 %
25-64	87,2 %	58,2 %	70,9 %	75,9 %	71,2 %
65etik gora	97,1 %	64,9 %	63,8 %	91,9 %	68,2 %

MENPEKOTASUN INDIZEA.



2023. URTEAN:

Bortzirietako biztanleriaren - 8.537 -

% 2,8k

du **menpekotasun aitortua**, hau da,

238 herritarrek.

Horietatik **46** dira **gizarte zerbitzuetako erabiltzaileak.**

Horietatik **% 71,7** dira **emakumezkoak.**

Etxez etxeko laguntza
zerbitzua:
64 erabiltzaile

226
prestazio ekonomiko
jaso ziren **Bortzirietan**

Jubiloteka. 5 herri,
58 emakume eta
16 gizon

Elkarrizan,
63 boluntario eta
3.800 boluntario lan ordu

Andra Mari eta San Jose
egoitzetan
40na erabiltzaile

Uxane Zentroan
25 erabiltzaile

Maddi egoitzan
16 erabiltzaile

Hautzaindegi
zerbitzua:
Bera, Lesaka,
Arantza

Udaleku irekietan
262
parte hartzaile



ZAINTZAILE AFEKTIBOAK

★ Familietan zaintzen dutenak, **emakumeak dira nagusiki.**

★ **Etenaldia dago bizitzan:** 24 orduko dedikazioa dute, karga mental handia eta eragin fisiko eta psikologikoak.

★ Soldatapeko lana dutenek **kontziliazio arazo larriak** dituzte.

★ **Gaixotasunak tarteko** daude-nean, egoera aunitz larritzen da, eta lan zama areagotu.

★ **Ez dago ikuspegi prebentiborik:** egoerak eztandak egiten duenean urgentziaz gerturatzen dira zerbitzuetara.

★ Mendekotasun balorazio **proze-**

durak motelak dira eta erabat burokratizatuak daude.

★ Gizarte zerbitzuen **balorazio positiboa** egiten dute. Zerbitzuak hedatu eta hobetu behar dira.

★ AFAN elkartea, Elkarrian egitasmoa zein Jubilotekak **arnas gune garrantzitsuak** dira.



AMATASUNA ETA BERTZE AMATASUNAK

★ **Haurdunaldia eta erditzeak prozesu ikusezinak** dira. Baliabide publikoak ez dira nahikoak.

★ Indarkeria obstetrikoa: **erditzean beldurra.**

★ Erditze ondokoa eta edoskitzea, **epaiaik** zeharkatzen ditu.

★ **Haur eskolen gaineko hausnarketa** egin beharra ere azpimarratu da.

★ Oraindik ama izateak **enpleguan zigor handiak** eragiten ditu.

★ **Gizonen absentzia nabarmena** da zaintzan. Lan zama handiena emakumeek dute, eta gizonen aldetik eremu honetan ere erantzukide-

tasun falta dagoela diote. Ez dago lan banaketa bidezkorik.

★ Isolamendua dakar amatasunak eta **saretze berrien beharra** agertu da.



ZAINTZAILE PROFESIONALAK

Bortzirietan **gehienak dira emakumeak, klase baxu eta ertainekoak, eta geroz eta gehiago atzerriatik etorritakoak**. Gehienek dituzte bertzelako zaintza ardura batzuk, bertan, edo jatorrizko herrialdean.

Haiei lana ez dute behar bezala aitortua sentitzen.



ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

★ **7 emakume** daude (3 jardun oso). Gehienez 2 orduko zerbitzuak eskaintzen dira, astelehenetik ortziralerara goizeko ordutegian.

★ Familientzako zerbitzu mugatua da, ez dituelakoz dituzten behar guztiak asetzen, baina **arnas uneak** dira.

★ **Arreta ereduak kezka sortzen du**, ezin baitute beti pertsona ardatz duen arreta eskaini.

★ **Menpekotasun geroz eta handiagoa** artatzen dute zerbitzuaren mugak agerian utziz.

★ **Lan baldintzekin** eta koordinazio ereduarekin konforme daude.

★ Eragin fisikoa eta emozional handia sentitzen dute.

ZAHAR EGOITZETAKO LANGILEAK

★ **Bi egoitza** eredu ezberdin daude Bortzirietan. Bietan, aldaketa prozesuan daude. Beran, lan baldintzak hobetzeko; eta Lesakan barne antolaketan.

★ Bi egoitzak **txikiak dira**. Lesakako egoitza irekia da, eta Berakoak, aldiz, erregimen itxiagoa du, erabiltzaileen mendekotasun maila hagitzez altuagoa delako.

★ **Erlojuaren kontra**. Denbora falta da bietan azpimarragarria. Hala ere, Beran denbora premia altuagoa da.

★ **Menpekotasun igo** egin da, eta asko baldintzatzen du. Pertsona

ardatz duen arreta eredutik aski urruti daude.

★ **Lan baldintzen gaineko eztabaida** aldarrikatzen da, eta horien hobekuntza, koordinazio eraginkorra eta gardentasuna.

★ **Herrian errotuta daude**. Biek kokagune aproposak dituzte, eta aukerak eskaintzen ditu horrek adineko pertsonak ere komunitatearen parte direla sentitzeko.

★ **Eraso sexistak ekiditeko** protokoloak gainbegiratzeko daudela diote.

ETXEKO LANGILEAK

★ **Atzerritartasun Legea Organikoak eta Etxeko Zerbitzuaren Errege Dekretuak guztiz baldintzatutako errealitate ezkutua** da. Bortzirietan perfil aunitz daude: internak daude, orduka lan egiten dutenak, eta bertakoak zein atzerri-
tik etorritakoak.

★ Atzeritik etorritakoen kasuan, distantziara ama izateak eragin handia du, **egoera emozional hauskorrean** kokatzen ditu emakumeak.

★ **Isolamendua handiagoa** da, garraio arazoak dituzte, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak eta zerbitzu eskasia. Hala ere, gertutasuna eta harrera egokia jaso dutela nabarmendu dute.

★ **Euskara ikastea nahia eta desioa** da. Aldiz, zailtasun handiak daude ikasteko.



ADINEKO PERTSONAK

- ★ **Alabak dira zaintzaile nagusiak**, aunitz etxean dira artatuak, eta haien desioetan ere hori ikusten da.
- ★ **Jubiloteken balorazio hagitz positiboa** egiten dute: egun gehiagoe-tan behar dira, eta taldeak handitze-ko aukera ere egon beharko luke.
- ★ Zerbitzu batzuen erabileraren aurrean **lotsa** nagusitzen da.
- ★ Askok bakardadea sentitzen dute. **EELZ akonpainamendurako soilik** eskaintzea proposatzen dute.
- ★ **Komunitateak lausotu** direla sentitzen dute, eta hori indartzea zaintza lanak demokratizazio bidean jartzeko ezinbertzekoa dela diote.
- ★ **Zerbitzuen zentralizazioa sa-latu** dute eta landa eremuko herri-tarrek eskubide berdinak dituztela aldarrikatu.

ETORKIZUNERAKO ERRONKAK

Jarraian dauden proposamenak herritarrekin egindako lan saioeta-tik zein aurretik aipatutako kolektiboekin izandako elkarrizketetatik eratorritakoak dira. Horiek akordio zabal bat bilakatzeko prozesua, aurrera begira egingo den lana izango da.



ZAINTZAK ERDIGUNEAN KOKATZEKO EGITURAK SORTU

Zaintza mahaia(k) sortu.

Mankomunitateen arteko elkarlana eta koordinazioa aztertu.

Nafarroako Zaintza Ituna sinatu.

Aurrekontuak zehaztu.

ARRETA EREDUA ETA ZERBITZUAK HOBETU

Pertsona ardatz duen arreta eredu-rako trantsizioa.

Zerbitzuen gaineko ezagutza hedatzea, horien dibertsifikazioa eta hedapena.

Mendekotasun tramitazioak arintze-ko baliabideak sortu.

Erresidentzien kudeaketa eredia aztertu.

Haurren zaintzarako zerbitzuak eskualde guzian hedatu.

Erditze ondoko arreta, fisiko zein psikologikoa.

Hezkuntzan, **zaintzaren pedagogia** zabaldu.

ZAINZAILAILEEN BIZI ETA LAN BALDINTZAK HOBETU

Zaintzaileen arteko **topaguneak**.

Garraioaren gaineko hausnarketa.

Etxeko langileen egoeraren gaineko **sentsibilizazioa**.

Erantzukidetasuna eta elkarreki-kotasuna: gizonen absentziari aurre egiteko estrategiak landu.

SARETZE KOMUNITARIOA

Bakardadeen gaineko hausnarketa.

Komunitatea indartzeko ekinbideak.

Orotariko zaintza beharrak asetze-ko **akonpainamendu eta sareak**.

Auzolanaren kultura hedatu.

Euskara ikasteko baliabide publiko eta komunitarioak sortu.

Jantokien gaineko hausnarketa egin.



Zaintza diagnostikoa osorik
irakurtzeko, eskaneatu QRa
zure mugikorrarekin.



Para leer el resumen en castellano,
escanea el código QR con tu móvil.



Bortzirietako
Berdintasun Zerbitzua



emagin | FORMAZIOA ETA
IKERKETA FEMINISTA